

Euskara gutxi dabil zaldiko-maldikoan

Zirkuan euskararen lehenengo printzak agertu dira. Udalek hala eskatuta, eta bezeroa euskalduna dela konturatuta, poliki-poliki euskara bere bidea egiten hasi da. Zaldiko-maldikoetan, aldiz, helduek modako musika entzuten segitzen dute, erdaretan.

| MARIJO DEOGRACIAS |

IL CIRCO ITALIANOK kartelez josi zuen Gernika (Bizkaia). Euskaraz ziren; izan ere, halaxe agurtu gintuzten, gaztelaniaz baino lehen. Ikuskizunean ikusiko genuena ere euskaraz iragarri ziguten bozgorailuetatik, zirkura sartu ahala. Zirkuko arduradunak, bata kataluniarra eta bestea euskalduna dira. Hortxe orduan euskaraz aritzearen arrazoia. Baina ezetz, eurentzat “normala” horixe dela, zirkuan nazio

askotako jendea ari dela lanean, eta errespeturik ezean, ezinezkoa litza-tekeela gobernatzea. Hala azaldu zigun Sonia Miranda barakaldarrak. Orain dela 20 urte zirkuarekin joatea erabaki zuen.

Zirkuan errusieraz, italieraz, errumanieraz, katalanez eta portugesez dakiten kideak daude. Doazen lekura doazela, bertako hizkuntzan aritzen dira, ahal den neurrian. Hala, euskaraz aritzeko ahalmenik duen

inor ez izan arren, bozgorailuetatik euskaraz grabatutako azalpenak ematen dituzte. Mirandak honela diosku: “Hemen euskaraz egiten bada, guk ere euskaraz egiten dugu, eta herritarrek gaztelaniaz eskatzen badigute, orduan bietara egiten dugu. Baina argi daukagu Euskal Herrian gaudela, eta beraz, euskarak lekua du, Katalunian katalanak duen bezalaxe. Salbuespena leku oso turistikoak izaten dira. Katalanez ez



DANI BLANCO

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak Donostian apirilean. Zirkuko partaide guztiak euskaraz aurkeztu zituzten eta saio txiki bat ere egin zuten. Il Circo Italianok eskatu zien euskaraz aritzeko.


dakien jende asko biltzen da eta ele bitan –katalanez eta gaztelaniaz– egiten dugu; ingelesez ere egiten ditugu aurkezpenetako batzuk [beti ere grabazioak dira]. Azken batean, mezua hel dadin nahi dugu eta garrantzitsua da ohiturak errespetatzea, tartean hizkuntza”.

EAEko udalerrri askok dituzte hizkuntza paisaia arautzeko ordenantzak, udalerriri eragiten diotenak, baita herrira doan elkarte, talde, enpresa edo dena delakoak bete beharrekoak ere. Egitekoa iragartzeko kartelak, gutxienez ele bitan izan behar dira. Horrela jasota dator tokian tokiko udalarekin sinatu beharreko kontratuan ere. Are gehiago, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eudelek eta EAEko feriante autonomoen elkarteak (AFADek) hitzarmena sinatu zuten 2011n, kale paisaia euskaraz egoteaz gain, “zaldiko-maldikoetan eta antzekoetan entzuten den musika, ahal dela, euskal musika izan dadin”. AFADek elkarteko bozeramaileak hala aitortu du: “Umeentzako zaldiko-maldikoetan errazagoa izaten da hitzarmena betetzea, haurrentzako asko dagoelako euskaraz. Helduagoentzakoetan, modako musika jartzen da, gaztelaniaz, ingelesez edo beste hizkuntza batzuetan”.

Euskara teknikarien laguntza

2011ko hitzarmenak dio hizkuntza paisaia irizpideak ezartzeaz gain, udaletako Euskara Zerbitzuek laguntza eskaini behar dietela jai ikuskizunak antolatzen dituztenei. Hau da, hizkuntza paisaiari lotutako euskarriak –ikuskitzunen inguruko oharrak, prezioen berri emateko errotuluak...– itzultzen lagunduko diete. AFADek dio asko errazten duela haien lana.

Baina, horrez gain, badira esijentzia maila hitzarmenaz harago igozten duten udalerrriak. Herri batzuetan, afixak moduko elementuak



Udal askok hala eskatuta zirkua eskaintzeko afixak eta bestelakoak euskaraz ipintzen dituzte.

euskara hutsean eskatzen dituzte, beste batzuetan %75 euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Feriariarik tokian tokiko udalarekin sinatzen duten kontratuan dago zehaztuta euskararen erabilerari dagokiona. Gernika-Lumoko (Bizkaia) Udalak esaterako, zera jasotzen du bere kontratuetan: “Publizitateari dago-

“Umeentzako zaldiko-maldikoetan errazagoa izaten da hitzarmena betetzea, haurrentzako musika asko dagoelako euskaraz”

AFADeko bozeramailea

kionez, euskarazkoa ere txertatu beharko duzue. Horretarako, Udaleko Euskara Zerbitzuko laguntza izango duzue”. Beraz, dena ez da eskatzea, ematea ere bada. Horretaz arduratzen dira udal euskara teknikariak. Gernika-Lumokoak, Bittor Zarrabeitiak, hala dio: “Datorren horrek gaitasunik ez badu kartela euskaraz jartzeko guk laguntzen diogu, baina geroz eta gehiago dira jada euskaratuta dakartenak. Zirkuoak [Il Circo Italianok], esaterako, ez du laguntzarik behar izan; web-

gunea ere euskaraz daukate!”.

Hernaniko Udalak ere Euskadiko Feriariari Autonomoen Elkargoarekin hitzarmena sinatzen du. Hala, “herritarren esku jarritako barraketako kartelak ele bitan izango dira: euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazko zatia bereziki nabarmenduz. Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko. Era berean, musika duten barrakek programazioaren %75 jarriko dute euskaraz. Udalak eskatuz gero, behartuta daude diskoak erakustera”. AFADeri galdetu diogu ea musika ipintzeko kanta zerrendarik eskaintzen dieten. Ez da horrelakorik egoten; feriarariarik eurek aurkitu behar dute musika.

Euskaraz, halamoduz

Hainbat udaletako eskaerak gorabehera, AFADeko ordezkariak esandakoagatik ez dirudi euskal musika entzuteko aukera asko izaten denik herriko jaietan: “Helduentzako modako kantak aukeratzen ditugu gehiengotan, tartean euskarazko abestiren batzuk ere egoten dira, baina badakigu gazteek-eta entzuten dutena kanpoko produktzioa dela batez ere”. Hainbat herritan Gaztea ferriari emisorari ipintzen dute feriarariarik.

Il Circo Italianokoentzat normala da joaten diren lekuan bertako hizkuntza erabiltzea, gutxiago edo gehiago. Ezin esan ordea, euskaraz aritzea normalizatua dagoenik, adibide batzuetan (kartelak, sarrerak...) bilakaera nabari bada ere. Zirkuaz harago, eta batik bat musikari dagokionez, euskararentzat egoera are latzagoa da. Zaldiko-maldikoetan, moda kontuek, alegia gaztelaniazko eta ingelesezko musikak, agintzen segiko dutela dirudi. ■



Babeslea: IVAP



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



IVAPen gomendioak web-orriak idazteko

**Komunikazio
Elektronikoa**





Kudeaketaren
Kalitateari
2012